

# Berriro malkoak

**Ainhoa Aguilar Lazkanotegi**

**DBH 1. eta 2. kurtsoak 2. saria**

**Berako Labiaga Ikastola**

Beste gau ilun bat kale-kantoi zikin honetan... Nola lo har dezake horren azkar nire ondoko gizon horrek?

Lurra bustita dago, eta gizonaren azpiko kartoiak jada xurgatu du inguruko ur guztia. Nik ez daukat ez egunkaririk ez kartoirik. Gaur non egingo dut lo?

Kalearen beste aldean emakume bat dago, afaltzen ari dela uste dut. Bai! Afaltzen ari da. Alboko Txino jatetxeko sobrak direla dirudi, katuekin borrokatu behar izan du janari hura lortzeko.

Goseak nago, 3 egun daramatzat ezer jan gabe. Ni ez naiz ausartzen zaborrontzian eskua sartzen, horregatik, goizera arte itxaroten dut, orduan kale ertzean esertzen naiz eta limosna eskatzen dut. Baina batzuetan ez dudanez dirurik lortzen bazkaria erosteko, nire izkinara bueltatu behar izaten dut burumakur, hurrengo egunaren zain.

Gaurko gaua berezia da, udazkeneko azken gaua. Hotza egiten du, eta euria ari duenez blai eginda nago. Ez dut gehiago busti nahi, baina aterpean dauden txoko guztiak okupatuak daude. Hemen geratu beharko dut, eserita, zakar-ontziaren ondoan, lotan dagoen gizonari begira.

Nire pentsamenduetan murgildu naiz. Gogoan dut nire gurasoekin azken gaua:

“Urriaren 26a zen, eguzkiak indarrrik gabe argitzen zuen. Goizero bezala, gosaria prestatu nuen gurasoentzako. Baina aitak beti zerbait zeukan niri leporatzeko. Batzuetan tostadak erreegiak zeudelako, besteetan, kafea hotza zegoelako... edozein aitzakia asmatzen zuen, ni biltegian itxi eta bertan 3 egunez jipoitzeko. Egun hura horietako bat izan zen, baina aita umore onez zegoenez, goiza bakarrik pasa nuen biltegian. Aitatxo pozik egotea oso zaila zen, horrek zerbait arraroa gertatuko zela esan nahi zuen. Amatxo bueltaka zebilen etxe guztian zehar, aztoratuta zegoen. Bidaia bat egingo genuela entzun nuen.

Lehenengo aldia zen haiekin bidaiatzen nuena, pozik nengoen. Nora joango ote ginen? Maletak prestatu zituzten, baina nirea ez zegoen hor, arropa amatxorenean sartu zutela esan zidaten.

Kotxera arrastaka eraman ninduten, ez nekien zer pentsatu, ona edo txarra zen. Gure herritik atera ginen, segituan ilunduko zuen. Gasolindegi batean gelditu ginen, komunera joan eta bidaia jarraitzeko. Aitak gasolina kotxera sartzen zuen bitartean, komunera joateko aprobetxatu nuen.

Dena zikina zegoen, ispilua puskatuta zegoen, komunak ez zeukan bonbarik, lurra paperez beterik zegoen, nazka ematen zuen hor sartzea... baina bueno... ezin nion pixagurari eutsi. Eskuak garbitu ondoren, kalera irten nintzen. Konturatu nintzenerako ez zegoen inor nire zain, ez nire amatxo, ezta nire aitaxo ere. Bilatzen hasi nintzen, baina dena alferrik, abandonatu egin ninduten! Nola egin zezaketen hau nire gurasoek? 5 urte besterik ez nituen! Oraindik txikia nintzen bakarrik egoteko! Nire gurasoak behar nituen! Ez ninduten maite! 5 urtetan aguantatu behar izan nituen jipoi eta irain guztiak...! Zergatik eduki zuten haurra? Abandonatzeko? Mespreatzeko?”

Malkoak isuri zaizkit aurpegian barrena! Ezin dut! Ez dut egin behar! Ez dut egin nahi! Ez ditut nire malkoak alferrik isuriko pertsona ziztrin horiengatik! Soinu arraro batek errealitatera bueltarazi dit. Karro herdoildu baten hotsa da. Agure zahar batek darama, poltsez beterik dago, niregana hurbildu eta ogi pixka bat eskaini dit. Esker onez eskua luzatu dut harri koxkor hura hartzeko asmotan, irribarre umil batek islatu du nire esker oneko sentimendua. Gizonak espresioa bueltatu dit eta horrekin batera bere hortz marroiak erakutsi dizkit. Bi falta zaizkio, muturra bizar gris batez inguratua dauka. Begi txiki eta beltz batzuek erakusten dute fidatzeko gizona dela. Ez dut beldurrik sentitu behar, pertsona ona da. Baina momentu horretan lurrean lotan zegoen beste gizona altxatu eta agurea jipoitu egin du karroa lapurtzeko nahian. Tramankulu zaharra hartu, eta ihesi joan da beste izkina batera. Izutu egin naiz, gauza berdina gertatu zen gasolindegi hartan utzi nindutenean:

“Espaloian eserita nengoen, nire begi gorriek negar egin nuela salatzen zuten. Horregatik hurbildu zen gizon arraro bat niregana. Fidagarria zela zirudien, baina oker nengoen, besotik hartu eta kotxe batean sartu ninduen. Ibilgailua oso azkar zihoan eta kale zikin batean botata utzi ninduen. Gizonak dirua eskatzera behartzen zidan eta berak eskatzen zuen kopurua lortzen ez banuen, aitak bezala zoritxarrez, jipoitu egiten ninduen. Nik, nire kale bazterra nuen, nire jabeak beste 3 neska-mutil gehiago zituen eta hiri guztian barrena banandu gintuen dirua lortzeko. Gure jabea ez zen mafia honetan sartuta zegoen gizon bakarra. Nire kalearen parean, beste mutiko bat zegoen. Nire jabeari baliagarria iruditu zitzaion, horregatik egun batean bahitu egin zuen, baina ez zen konturatu mutikoak beste jabe bat zuela. Orduan, gau batean, bibotedun erraldoi bat agertu zen gure txabolako atera. Jabeak ireki zuenean, gizonak muturreko bat eman eta etxe zaharrari su eman zion. Bertan nire lagun guztiak zeuden, baina 2 minututan erraldoiak zaku batean sartu eta kotxe beltz batean sartu zituen. Zorionez, ihes egitea lortu nuen.”

Agurea arnasestuka ari da, sirena hotsa entzuten da urrunean. Emakume bat korrika etorri da, eskuak gizonaren odolez bustita nituela ikustean besotik hartu eta kotxean sartu nau. Eraikuntza argitsu batean sartu eta galderak egiten hasi da:

-Nola izena duzu? Zenbat urte dituzu? Non daude zure gurasoak? Zertaz ezagutzen duzu agure hori? Nork hil du gizona?

Itogarritasuna sentitu dut lepoan barrena, birrikak ixten hasi zaizkit, ezin dut arnastu, aztoratuta nago. Nor da emakume hau? Zergatik egiten dizkit galdera hauek guztiak? Hemendik ihes egin nahi dut. Non dago ogia eskaini didan gizona? Zer gertatu zaio?

Emakumeak hitz egiten ez nuela konturatzean berriro ere kotxean sartu nau. Beste eraikuntza batean sartu eta beste gizon batengana eraman nau. Bata zuri bat darama betaurrekodun gizon txikiak, aulki batean eseri da eta niri sofa itxurako altzari batean etzanarazi dit. Gizon honek, lasaitasun sentsazioa transmititzen du. Orain bai, lasai har dezaket arnasa, sudurretik hartu eta ahotik astiro-astiro bota egiten dut. Konturatu gabe lo geratu naiz. Hodei zuri batean etzanda nagoela amestu dut, dena oso polita da, hodeia biguin-bigaina da. Oso erlaxatua nago, hemen gelditu nahiko nuke betirako. Baina txutxu-mutxu batzuek esnatu ninduten:

—Mutikoa ez dago oso ondo, shock egoeran dago, kontuz ibili behar da berarekin, gizon bat hil du jada.

—Ezinezkoa da! Haur bat besterik ez da! Nola egin dezake?

—Kalean hilabeteak daramatza. Goseak egongo zen, agurearen karroa janariz beteta zegoen.

—Zer errezetatuko diozu doktore?

—4 hilabetez lasaigarri hauek eman, ea hobera egiten duen...